

Txirritola

Aramaioko euskara elkartearen informazioa.

Maiatza-2000

KAIXO!

2000. urteko martxoan sortu zen Txirritola euskara elkarte Aramaion. Eskuetan duzun informazio hau elkarteak publikatu duen lehendabiziko alea da.

Aurrerantzean publikatuko ditugu beste orri informatibo batzuk. Hala ere, ez dugu inolako eperik markatu horretarako.

Eskuetan duzun honako hau, Aramaioko etxe guztietan banatu da. Guztira 500 ale inguru inprimatu dira.

Aramaio Arabako herririk euskaldunena da. 1.300 biztanle inguru gara eta %86a euskalduna.

Txirritola elkartearen asmoa hau da: Aramaion euskaraz hitz egitea, eta gure hizkuntza propioa zaintzea.

Badakigu, honako hau irakurtzen duzuen askok ere berdin pentsatzen duzuela. Horregatik, herritar guztiok izango duzue elkarte honetan parte hartzeko aukera.

Nola parte hartu? Nahi baduzu osatu dugun batzordean har dezakezu parte. Bestela zure iritziak edo sujerentziak entzuteko prest egongo gara. Gainera, urtean

zehar prestatuko ditugun ekintzetan har dezakezu parte.

Kultur elkarte guztiek bezala, bazkideak edo sozioak egiteko asmoa ere badugu. Diru iturria lortzeaz gain, zure konpromezua lortu nahi dugu euskararekiko. Urte osoko kuota 1.000 pezetakoa da.

Informazio orri honetan bertan aurkituko duzu: bazkide egiteko txartela, eta sujerentziak bidaltzeko helbidea.

Hemen azaldukoak euskara elkartearen aspektu nagusienak badira ere, badaude beste proiektu batzuk oso interesgarriak direnak.

Guztiaren berri izan nahi baduzu eta elkarte bera ezagutzeko interesa baduzu, zita bat dugu elkarrekin.

Zita honetara etortzen bazara, elkar ezagutuko dugu, inolako konpromezurik hartu gabe.



Txirritola
Euskara Elkarte
Aramaio

Txirritola euskara elkartearen aurkezpena Aramaioko herritarrei.

NOIZ: Maiatzaren 19an, arratsaldeko 7etan.

NON: Udaletxeko Pleno Aretoan.

ISIDRA URZELAI

eta

ANA JAUREGI



Isidra eta Ana koñatak dira eta Aramaioko Montero etxean bizi dira, Maria Asun, Anaren alabarekin eta laguntzaile batekin. Anak 92 urte ditu eta Isidrak 96 eta Aramaioko emakume nagusiena da, gainera. Osasunez nahiko ondo dabilta; negu partean susto batzuk izan dituzte baina momentu honetan “ondo bizi gara” esan digute. Txirritola elkartearen lehen informazio orri hau maiatzean kaleratzen denez, garai honetako kontu zaharrak jaso nahi izan ditugu. Hona hemen.

eta bertako erromeixara joaten ginen. Baina ez gauean orain bezala, arratsaldeko 4etan hasten zen.

↳ -Zer gehiago?

- Santi Kurtz egunean, maiatzak 3an abadeak konjuruak hasten zituen eta setiembre aldera bukatzen ziren. Elizpeian eta zoluetan egiten ziren bedeinkapenak. Errogatibak be maiatzean hasten ziren. Nik buruan daukaten errogatiba politena Barajuenera egiten zena da; gauean irten, Santanan meza entzun, kanposantura joan, gero Azkuagako Santageraxora, eta azkena Barajuenen. Bertara ailegatu ondoren, elizak ogia eta ardoa ematen zuen denontzat. Nahikoa jan eta edan ondoren, etxera bueltatzen ginen.

↳ -Eta nola ikusten dituzue gaurko gazteak?

- Ene, ene! Guk arratsalde partean irten eta ilundu arte nahiko denbora izaten genuen ondo pasatzeko. Gaurko gazteek ez dakite dantzan ere. Gauez irtetzen dira, tabernaz taberna ibili eta eguna argitzean etxera. Jaixetan 12etan izaten zen erretirue gure denboratan, baina gaur ordu horretan etxetik irteten dira gazteak.

Pentsau, ni ez naiz inoiz taberna batera sartu, oraintxu arte. Orduan gizonetzokak bakarrik sartzten ziren tabernetara. Praxak be gizonen jantzia izaten zen, guk beti gona edo soinekua eramaten genuen. Fiestetan jantzi berriak estreinatzen genituen, baina ondo begiratuta zaindu behar izaten ziren, ez gaur bezala. Batek baino gehiagok dantzan egin eta gero, alpargatak edo albarkak apurtuta be eramaten zituen etxera.

↳ -Gaztetan, egiten al zenuten zer-bait espeziala maiatzean?

- Beno, gauzak asko aldatu dira, eh! Mezetara joaten ginen egunero. Neskak abestu egiten genuen eta abadeak “errezaixue” errezatu eta Maiatzeko Loren irakurgaia irakurri. Meza ondoren, nahi zuenak pasiaua eman eta bestela etxera etortzen ginen. “Erromeixie” be egoten zen plazan domekero, baina “Hijas de María”ko neskak ezin izaten zuten “baltziuen edo agarrauan” dantzan egin, sueltuan bakarrik. Hori bai, “aramai-txekue” entzun ondoren, etxera etortzen ginen.

↳ -Zer zen “aramaitxekue”?

- Iluntzean, kanpaiak jotzen ziren, horixe izaten zen “aramaitxekue”. Etxera erretiratzeko ordua anuntziatzen zuen, 9etarako etxean izaten ginen.

↳ - Maiatzean non egiten ziren erromeixak?

- Maiatzean baserriko erromeixak hasten ziren. Labian amarbirjinatxo bat zegoen

↳ -Herria bera be asko aldatu da, ezta?

- Askok, lehen zenbat etxe zeuden ba Aramaixon? Orduko antzik be ez dauka, eh! Bizimodua be guztiz aldatu da. Begira, esate baterako, nire gazte denboran goizean jaiki ondoren, iturri-ira joaten nintzen ura ekartzen eta 7.30etarako lanera joaten nintzen. 52 urte egin ditut etxetik kanpo lanean.(Isidrak)

↳ -Eta zer moduz bizi zarete gaur?

- Ondo. 10.30 arte ohean egon, gero jaiki eta telebista ikusten dugu. Isidrak puntua egiten du, eta eguneroko bazkaria ere guk prestatzen dugu. Negu partean izan ditugu osasun aldetik gorabeherak, Isidrak batez ere, baina orain oso ondo gaude.

Herriko bertsolari gazteak

Bertsotan bokaziñue sentiruten dauenandako, zabalik dau **bertso-eskolie**. Beraz, animau!!!!

Aramaixoko bertso eskoliek pare bat urte bete ditte lan eta biherrien. Bere biziraupenaren zergatik nagusixe egon dan lan eta festa giro ederra eta ikaslien partetik mentalizaziño haundixe izen die. Irakaslien aldetik be (Ohiane Perea andereño agurgarria) borondate ona erakutsi dauela esan biherria dau.

Bertso eskolan bi maila bereizten die adinaren aldetik: nagusixen klasiñen lau ikasle daz, kurtso hasieran bik desertatu ostien. Txikiñenen klasiñen, aldiz, hamar neska-mutil daz, gerra apur bat emuten, bestiek desesperetan, eta bide batez bertsotan ikesten.

San Prudentzio txapelketa bukatu barri da, eta nagusixenek bertan parte hartu daue, eta postu bastante onak lortu be bai, klasiñetan daroien denborie ikusitxe. Txikiñetako batzuk, barriz, eskolarteko txapelketan parte hartzeko asmue daukie. Nagusixen artien be badau intentziño hori.

Beste barik, hona hemen beraien argazki eta elkarriketa txiki bana.



ANDERE ARRIOLABENGOA

1 - Zure bertso saio onena?
Araiako final laurdena.

2 - Bertsolari gustokoenena?
Jon Sarasua.

3 - Zer da mundu honetatik gehixen gustetan jatzuna?
Girue eta juergie.

ARAITZ GARAI

1 - Zure bertso saio onena?
Nik be Araiakue, bakarra izen da eta.

2 - Bertsolari gustokoenena?
Amets Arzallus.

3 - Zer da mundu honetatik gehixen gustetan jatzuna?
Botatzen diren juerga eta barriek.

MANEX AGIRRE

1 - Zure bertso saio onena?
Izarrako final laurdena.

2 - Bertsolari gustokoenena?
Asier Iriondo.

3 - Zer da mundu honetatik gehixen gustetan jatzuna?
Nerbixuek kendute beste dana.


LIERNI ALTUNA

1 - Zure bertso saio onena?
Itxurritzekue.

2 - Bertsolari gustokoenena?
Anjel Mari Peñagarikano.

3 - Zer da mundu honetatik gehixen gustetan jatzuna?
Girue ta lagun asko itxeko aukerie..

Badakitzu zer dan txirritolie?



Idoia Beitia
Ikasle, 13 urte

Ez, ideaik pez!



Faustina Ibabe
Etxekoandrie, 65 urte

Bai, argizaixaz eindako kandelie. Len elixan baserri bakotxak euken hilerixen ipintten zien. Norbait hiltten zanian, oin mezie emuten dan moduen, len txirritolie edo kandelie emuten jakon famili artekuei, hildakoei argi ein zeixon.




Asun Lopez de Bergara
Irakasle, 37 urte

Bai. Azkena 15 urte dala baserrixen ikusinen. Argixe joaten zanian ipintten zan argi eitteko. Kolore berezixe dauken argizai luze borobildue da.



Jose Beitia
Jubilau, 80 urte

Bai, ezto jakingo ba! Kandela espeziala, batu batue zinttien moduen. Etxien asko ibilitekue naz; len etxeko txoko guztietan etzan argik egoten eta kuartuetatik ibiltteko beharrezkue izaten zan.



Patxi Unzueta
Jubilau, 61 urte

Bai, farola baten barruen sartzen zan argi eitteko. Mutikotan farolie aldien neukela medikuei lagundute nau auzoik auzo. Gabien aldameneko auzuen abixurenbat emun bierra auenien be horretxeaz joaten gitzen. Kandeliek baño argi bizixae dauko eta iraun be gehixau eitten dau.



Erik Garcia Altuna
Lan barik, 25 urte

Ez, ezta kitt.

BAZKIDE-SOZIO IZATEKO TXARTELA (Urte osoko kuota 1.000 pezetakoa izango da)

Izen-abizenak:

Helbidea:

Banketxea:

Kontu korrentea:

ZURE SUJERENTZIAK HEMEN:



.....

.....

.....

.....

UDALETXEAN, TXIRRITOLA ELKARTEAK DUEN BUZOIAN BOTA.